

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

MEKANIZAZIOKO TEKNIKARIA

6. modulua: **Metrologia eta Saiakuntzak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

MEKANIZAZIOKO TEKNIKARIA

6. modulua: **Metrologia eta Saiakuntzak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urtarrila

Ale-kopurua: 150 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Iñaki Campo Celemín

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: VI-635/08

AURKIBIDEA

Iraupena: 132 ordu
UDen kopurua: 7

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	03. or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	04. or.
1	1. unitate didaktikoa: Saiakuntza suntsitzaileak aztertu eta egitea	07. or.
2	2. unitate didaktikoa: Saiakuntza ez-suntsitzaileak aztertu eta egitea	12. or.
3	3. unitate didaktikoa: Perdoi dimentsionalak aztertu eta zehaztea	17. or.
4	4. unitate didaktikoa: Gainazal-perdoiak aztertu eta zehaztea	20. or.
5	5. unitate didaktikoa: Perdoi geometrikoak aztertu eta zehaztea	23. or.
6	6. unitate didaktikoa: Mekanizatutako produktuaren kalitate-kontrola	26. or.
7	7. unitate didaktikoa: Mekanizazio-prozesuen kontrol estatistikoa	29. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK					UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5		
					UD0: Moduluaren aurkezpena	1
x			x		UD1: Saiakuntza suntsitzaileak aztertu eta egitea	27
x			x		UD2: Saiakuntza ez-suntsitzaileak aztertu eta egitea	16
x	x				UD3: Perdoi dimentsionalak aztertu eta zehaztea	12
x	x				UD4: Gainazal-perdoiak aztertu eta zehaztea	13
x	x				UD5: Perdoi geometrikoak aztertu eta zehaztea	18
				x	UD6: Mekanizatutako produktuaren kalitate-kontrola	23
		x			UD7: Mekanizazio-prozesuen kontrol estatistikoa	22
GUZTIRA						132 ordu

1. multzoa: Piezak eta horiek egiaztatzekeo baliabideak prestatzea
2. multzoa: Dimentsioak egiaztatzea
3. multzoa: Prozesu automatikoak kontrolatzea
4. multzoa: Produktuaren ezaugarriak kontrolatzea
5. multzoa: Kalitatea kudeatzeko sistemetan eta erduetan esku hartzea

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu			
Ikaskuntzaren helburuak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluaren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 				

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arbela. ▪ Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. ▪ Kronogramak ▪ Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluen gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa bamean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (I) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (In-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. I-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.

1. unitate didaktikoa: SAIKUNTZA SUNTSITZAILEAK AZTERTU ETA EGITEA		Iraupena: 27 ordu				
<p>IE1: Tresnak, egiaztatzeko ekipoak, eta saiakuntza suntsitzaileetako eta ez-suntsitzaileetako ekipoak prestatzen ditu: tresnak aukeratu eta beharrezko teknikak edo prozedurak aplikatzen ditu.</p> <p>IE4: Fabrikatutako produktuaren ezaugarriak eta propietateak kontrolatzen ditu, parametroaren balioa kalkulatu eta emaitzak produktuaren zehaztapenekin alderatuta.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Saiakuntza suntsitzaileetan eta erabiltzeko prozeduran erabiltzen diren tresnak eta makinak deskribatzea. Saiakuntza suntsitzaileak horiek kontrolatzen dituzten ezaugarriekin erlazionatzea. Saiakuntzetan erabiltzen diren ekipo eta makinetan gertatzen diren akatsik bereizgarrienak eta hauek zuzentzeko modua azaltzea. Saiakuntzak egiteko beharrezkoak diren gaiak edo probetak prestatu eta egokitzea. Saiakuntzetan lortutako emaitzek eskatutako zehaztasuna izatea. Lortutako emaitzak interpretatzea eta kalitateari buruzko dokumentuetan erregistratzea. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatzea. 						
EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Piezak saiakuntzarako prestatzea. Saiakuntza suntsitzaileetarako tresnen edo ekipoen kalibrazioa egiaztatzea. Saiakuntza suntsitzaileetarako laborategiaren giro- eta garbitasun-baldintzak egiaztatzea. Probetak prestatzea. Saiakuntza suntsitzaileak egitea. Emaitzak interpretatu eta erregistratzea. 	X			X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Piezek bete behar dituzten eskakizunak saiakuntza suntsitzaileak (SS) egiteko. Saiakuntzak egiteko baldintzak. Kalibrazio-teknikak. Saiakuntza suntsitzaileak: trakzioa, konpresioa, gogortasuna eta erresilientzia. Saiakuntza suntsitzaileetan erabiltzen diren ekipoak. Ohiko erroreak saiakuntza suntsitzaileetan. Datuak jasotzeko fitxak. Saiakuntza suntsitzaileetarako ekipoak kalibratu eta doitzea. 	X			X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Zuhurtasuna prestaketan. Ordena eta garbitasuna prozesua egitean. Zuhurtasuna balioak lortzean. 	X			X	

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0-E0. UDaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.		1 h	x	x	<p>Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta hura modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.</p> <p>Irakasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.</p>	Ikasleek moduluen helburuak zein diren jakin dezaten, eta haien aurretiazko ezagupenak ebaluatu ahal izateko.	OCDa. Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
I1. Erakustaldia eta praktika gidatua, trakzioko edo konpresioko makina doitzeari buruzkoa.	1, 2 eta 3	0,25 h	x	x	Irakasleak makina abian jartzeko modua erakutsiko du. Ikasleek jarraian makina hori erabiliko dute taldetan banatuta.	Taldekide guztiek uler dezaten erabiliko den makina abian jartzeko jarraitu beharreko prozesua.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I2. Azalpena, trakzioko edo konpresioko probeta bat prestatzeari buruzkoa.	4	0,25 h	x	x	Trakzio-saiakuntzak egiteko konformatutako probeten dimentsioei buruzko arauak aztertuko dira.	Ikasleak jabetu daitezten saiakuntzaren emaitzak lortzeko garaian probetaren dimentsioek duten garrantzia.	Fotokopiak eta gardenkiak.
I3. Erakustaldia eta praktika gidatua, trakzioko edo konpresioko saiakuntzari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6 eta 7	2 h	x	x	Irakasleak makinaren funtzionamenduari buruzko erakustaldi bat egingo du. Ikasleek jarraian makina hori erabiliko dute taldetan banatuta.	Ondoren gai izan daitezten bere kasa trakzio-saiakuntzak egiteko, irakaslearen laguntzarekin betiere.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.

I4. Praktika autonomoa, trakzioko edo konpresioko saiakuntza egiteko.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7.	11 h	x	x	Trakzioko edo konpresioko saiakuntzari buruzko jarduerak egitean lortutako ezagupenak erabiliko dira.	Egiaztatzeko ikasleak gai direla trakzioko edo konpresioko saiakuntza bere kabuz eta modu jarraituan egiteko, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko araudia kontuan hartuta.	Trakzioko edo konpresioko saiakuntzarekin lortutako praktikei buruzko txostenean jasotako datuak.
E1. Trakzioko edo konpresioko saiakuntzari buruzko praktika gidatuetan lortutako ezagupenak ebaluatzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	1 h	x		Ikasle-talde bakoitzak trakzioko edo konpresioko saiakuntzaren praktika gidatuak azalduko ditu gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, egindako trakzioko edo konpresioko saiakuntzaren praktika gidatuak aurkezteko.	Ziur egotearen ikasleek beharrezko ezagupenak lortu dituztela trakzioko edo konpresioko saiakuntzetarako makina, haren tresnak eta saiakuntzan baliatutako probeta erabiltzeko.	Txostena.
I5. Erakustaldia eta praktika gidatua, erresilientzia neurtzeko makina prestatzeari buruzkoa.	1, 2 eta 3	0,25 h	x	x	Irakasleak taldeka banatuta ikasleek erabili beharreko makina abian jartzeko modua azalduko du.	Taldekie guztiek uler dezaten erabiliko den makina abian jartzeko jarraitu beharreko prozesua.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I6. Azalpena eta praktika gidatua, erresilientzia-saiakuntzarako probeta prestatzeari buruzkoa.	4	0,25 h	x	x	Erresilientzia-saiakuntzak egiteko konformatutako probeten dimentsioei buruzko arauak aztertuko dira.	Ikasleak jabetu daitezten saiakuntzaren emaitzak lortzeko garaian probetaren dimentsioek duten garrantzia.	Fotokopiak eta gardenkiak.
I7. Erakustaldia eta praktika gidatua, erresilientzia-saiakuntzari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6 eta 7	2 h	x	x	Irakasleak makinaren funtzionamendua azalduko du. Ikasleek taldetan banatuta erabiliko dute makina hori.	Ondoren gai izan daitezten bere kasa trakzio-saiakuntzak egiteko, irakaslearen laguntzarekin betiere, eta dagokion txostena egiteko.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.

I8. Praktika autonomoa, erresilientzia-saiakuntza egiteko.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	3 h	x	x	Erresilientzia-saiakuntzari buruzko jarduerak egitean lortutako ezagupenak erabiliko dira.	Egiaztatzeko ikasleak gai direla erresilientzia-saiakuntza bere kabuz eta modu jarraituan egiteko, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko araudia kontuan hartuta.	Erresilientzia-saiakuntzarekin lotutako praktikei buruzko txostenean jasotako datuak.
E2. Gogortasun-saiakuntzari buruzko praktika gidatueta lortutako ezagupenak ebaluatzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	1 h	x		Ikasle-talde bakoitzak gogortasun-saiakuntzaren praktika gidatuak azalduko ditu gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, egindako erresilientzia-saiakuntzaren praktikak aurkezteko.	Ziur egotearen ikasleek beharrezko ezagupenak lortu dituztela gogortasun-saiakuntzarako makina, haren tresnak eta saiakuntzan baliatutako probeta erabiltzeko.	Txostena.
I9. Erakustaldia eta praktika gidatua, gogortasuna neurtzeko makina prestatzeari buruzkoa.	1, 2 eta 3	0,25 h	x	x	Irakasleak taldeka banatuta ikasleek erabili beharreko makina abian jartzeko modua azalduko du.	Taldekide guztiek uler dezaten erabiliko den makina abian jartzeko jarraitu beharreko prozesua.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I10. Azalpena, gogortasun-saiakuntzarako probeta prestatzeari buruzkoa.	4	0,25 h	x	x	Gogortasun-saiakuntzak egiteko konformatutako probeten dimentsioei buruzko arauak aztertuko dira.	Ikasleak jabetu daitezten saiakuntzaren emaitzak lortzeko garaian probetaren dimentsioek duten garrantziaz.	Fotokopiak eta gardenkiak.
I11. Erakustaldia eta praktika gidatua, gogortasun-saiakuntzari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6 eta 7	0,5 h	x	x	Irakasleak makinaren funtzionamendua azalduko du. Ikasleek taldetan banatuta erabiliko dute makina hori.	Ondoren gai izan daitezten bere kasa trakzio-saiakuntzak egiteko, irakaslearen laguntzarekin betiere, eta dagokion txostena egiteko.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I12. Praktika autonomoa, gogortasun-saiakuntza egiteko.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	3 h	x	x	Gogortasun-saiakuntzari buruzko jarduerak egitean lortutako ezagupenak erabiliko dira.	Egiaztatzeko ikasleak gai direla gogortasun-saiakuntza bere kabuz eta modu jarraituan egiteko, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko araudia kontuan hartuta.	Gogortasun-saiakuntzarekin lotutako praktikei buruzko txostenean jasotako datuak.



E3. Gogortasun-saiakuntzari buruzko praktika gidatuetan lortutako ezagupenak ebaluatzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	1 h	x		Ikasle-talde bakoitzak gogortasun-saiakuntzaren praktika gidatuak azalduko ditu gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, egindako gogortasun-saiakuntzaren praktikak aurkezteko.	Ziur egotearren ikasleek beharrezko ezagupenak lortu dituztela gogortasun-saiakuntzetarako makina, haren tresnak eta saiakuntzan baliaitutako probeta erabiltzeko.	Txostena.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none">Makinaren bat eskura ez balego, saiakuntza mota horiek egiten dituen enpresa batera edota beste ikastetxe batera bisitaldia egin daiteke.							

2. unitate didaktikoa: SAIKUNTZA EZ SUNTSITZAILEAK AZTERTU ETA EGITEA		Iraupena: 16 ordu				
<p>IE1: Tresnak, egiaztatzeko ekipoak, eta saiakuntza suntsitzaileetako eta ez-suntsitzaileetako ekipoak prestatzen ditu: tresnak aukeratu eta beharrezko teknikak edo prozedurak aplikatzen ditu. IE4: Fabrikatutako produktuaren ezaugarriak eta propietateak kontrolatzen ditu, parametroaren balioa kalkulatuta eta emaitzak produktuaren zehaztapenekin alderatuta.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Suntsitzaileak ez diren saiakuntzetan eta erabiltzeko prozeduran erabiltzen diren tresnak eta makinak deskribatzea. Saiakuntza ez-suntsitzaileak horiek kontrolatzen dituzten ezaugarriekin erlazionatzea. Saiakuntzetan erabiltzen diren ekipo eta makinetan gertatzen diren akatsik bereizgarrienak eta haiek zuzentzeko modua azaltzea. Saiakuntzak egiteko beharrezkoak diren gaiak edo probetak prestatu eta egokitzea. Saiakuntzetan lortutako emaitzek eskatutako zehaztasuna izatea. Lortutako emaitzak interpretatzea eta kalitateari buruzko dokumentuetan erregistratzea. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatzea. 						
EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Piezak saiakuntzarako prestatzea. Saiakuntza ez-suntsitzaileetarako tresnen edo ekipoen kalibrazioa egiaztatzea. Saiakuntza-laboretegiaren giro- eta garbitasun-baldintzak egiaztatzea. Probetak prestatzea. Saiakuntza suntsitzaileak egitea. Emaitzak interpretatu eta erregistratzea. 	X X X			X X X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Piezen eskakizunak saiakuntzari ekiteko. Saiakuntzak egiteko baldintzak. Kalibrazio-teknikak. Saiakuntza ez-suntsitzaileak: likido sarkorrak, partikula magnetikoak eta ultrasoinuak. Saiakuntza ez-suntsitzaileetan erabiltzen diren ekipoak. Ohiko erroreak saiakuntza ez-suntsitzaileetan. Datuak jasotzeko fitxak. Saiakuntza ez-suntsitzaileetarako ekipoak kalibratu eta doitzea. 	X X X			X X X X X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Zuhurtasuna prestaketan. Ordena eta garbitasuna prozesua egitean. Zuhurtasuna balioak lortzean. 	X X			X	

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			lr.	lk.			
J0-E0. UDaren aurkezpena. Hasierako ebaluazioa.		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, ebaluazio-sistema, egutegia, etab. aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta hura modulu osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ikasleek gaiari buruz duten ezagutzaren hasierako ebaluazioa egiteko, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie unitate didaktiko honetan garatu beharreko edukien inguruan. Irakasleak gaiari buruz ikasleek dituzten ezagupenak zuzenduko ditu eta horiek erantzun zuzenekin osatuko ditu.	Ikasleek unitatearen helburuak zein diren jakin dezaten, eta haien aurretiazko ezagupenak ebaluatu ahal izateko.	OCDa. Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
I1. Erakustaldia eta praktika gidatua, likido sarkorrak erabiltzeko pieza prestatzeari buruzkoa.	1, 2, 4	0,5 h	x	x	Erabili beharreko likido sarkorraren fabrikatzaileak zehaztutako argibideei jarraituko zaie.	Prozesua ahalik eta baldintza hoberenetan egiteko eta emaitza egokienak lortzeko.	Likido sarkorraren fabrikatzaileak deskribatutako prozedura.
I2. Azalpena eta praktika gidatua, likido sarkorrak erabiltzeari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6, 7.	0,5 h	x	x	Erabili beharreko likido sarkorraren fabrikatzaileak zehaztutako argibideei jarraituko zaie.	Prozesua ahalik eta baldintza hoberenetan egiteko eta emaitza egokienak lortzeko.	Ikaslearen osasunean eraginik ez izateko eta ingurumenean kalterik ez sortzeko beharrezkoak diren babes-baliabideak.
I3. Praktika autonomoa, likido sarkorren saiakuntza egiteko.	1, 4, 5, 6 eta 7.	3 h	x	x	Kasuak kasu erabiltzen den likido sarkorraren fabrikatzaileak zehaztutako argibideei jarraituko zaie.	Ikasleek ezagutu ditzaten erabilitako teknika eta produktuak, eta likido sarkorren saiakuntza egiteak berekin dakartzan arriskuak.	Aukeratutako likido sarkorra. Kontuan izan behar dira hura erabiltzeak ikasleen osasunerako eta ingurumenerako ekar ditzakeen arriskuak.

E1. Likido sarkorrei buruzko praktika gidatuetan lortutako ezagupenak ebaluatzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	0,5 h	x		Ikasle-talde bakoitzak likido sarkorrekin egindako saiakuntzaren praktika gidatuak azalduko ditu gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, likido sarkorrekin egindako saiakuntzaren praktikak aurkezteko.	Ziur egotearen ikasleek beharrezko ezagupenak lortu dituztela likido sarkorrekin saiakuntza egiteko eta saiakuntzan baliatutako probeta erabiltzeko.	Txostena.
I4. Erakustaldia eta praktika gidatua, partikula magnetikoen saiakuntza egiteko pieza prestatzeari buruzkoa.	1, 2, 4.	0,25 h	x	x	Partikula magnetikoen saiakuntza egiteko piezak prestatzeari buruzko arauak, eta horiek erabiltzeak ikaslearentzat eta ingurumenarentzat berekin dakartzan arriskuak aztertuko dira.	Ikasleak jabetu daitezten partikula magnetikoen saiakuntza egiteak duen garrantziaz eta saiakuntza mota hori erabiltzeak berekin dakartzan arriskuez.	Fotokopiak eta gardenkiak.
I5. Erakustaldia eta praktika gidatua, partikula magnetikoen saiakuntzak egiteko makina doitzeari buruzkoa.	1, 2, 3.	0,5 h	x	x	Irakasleak taldeka banatuta ikasleek erabili beharreko makina abian jartzeko modua azalduko du.	Taldekide guztiak uler dezaten erabiliko den makina abian jartzeko jarraitu beharreko prozesua.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I6. Erakustaldia eta praktika gidatua, partikula magnetikoen saiakuntzari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6, 7	0,5 h	x	x	Irakasleak makinaren funtzionamendua azalduko du. Ikasleek taldetan banatuta erabiliko dute makina hori.	Ondoren gai izan daitezten bere kasa partikula magnetikoen saiakuntza egiteko, irakaslearen laguntzarekin betiere.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I7. Praktika autonomoa, partikula magnetikoen saiakuntza egiteko.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	3 h	x	x	Partikula magnetikoen saiakuntzari buruzko jarduerak egitean lortutako ezagupenak erabiliko dira.	Egiaztatzeko ikasleak gai direla partikula magnetikoen saiakuntza bere kabuz eta modu jarraituan egiteko, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko araudia kontuan hartuta.	Partikula magnetikoen saiakuntzarekin lotutako praktikei buruzko txostenean jasotako datuak.

E2. Partikula magnetikoen saiakuntzari buruzko praktika gidatueta lortutako ezagupenak ebaluatzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	0,5 h	x		Ikasle-talde bakoitzak partikula magnetikoen saiakuntzari dagokion praktika gidatua azalduko du gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, egindako partikula magnetikoen saiakuntzari dagozkion praktikak aurkezteko.	Ziur egotearen ikasleek beharrezko ezagupenak lortu dituztela partikula magnetikoen saiakuntzetarako makina, haren tresnak eta saiakuntzan baliatutako probeta erabiltzeko.	Txostena.
I8. Erakustaldia eta praktika gidatua, ultrasoinu bidezko saiakuntza egiteko pieza prestatzeari buruzkoa.	1, 2, 4	0,25 h	x	x	Ultrasoinu bidezko saiakuntza egiteko piezak prestatzeari buruzko arauak, eta horiek erabiltzeak ikaslearentzat eta ingurumenarentzat berekin dakartzan arriskuak aztertuko dira.	Ikasleak jabetu daitezten ultrasoinu bidezko saiakuntza egiteak duen garrantziaz eta saiakuntza mota hori erabiltzeak berekin dakartzan arriskuez.	Fotokopiak eta gardenkiak.
I9. Erakustaldia eta praktika gidatua, ultrasoinu bidezko saiakuntzak egiteko makina doitzeari buruzkoa.	1, 2, 3	0,5 h	x	x	Irakasleak taldeka banatuta ikasleek erabili beharreko makina abian jartzeko modua azalduko du.	Taldekide guztiak uler dezaten erabiliko den makina abian jartzeko jarraitu beharreko prozesua.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I10. Erakustaldia eta praktika gidatua, ultrasoinu bidezko saiakuntzari buruzkoa.	1, 2, 3, 5, 6, 7	1 h	x	x	Irakasleak makinaren funtzionamendua azalduko du. Ikasleek taldetan banatuta erabiliko dute makina hori.	Ondoren gai izan daitezten bere kasa ultrasoinu bidezko saiakuntzak egiteko, irakaslearen laguntzarekin betiere.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
I11. Praktika autonomoa, ultrasoinu bidezko saiakuntza egiteko.	1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7	3,5 h	x	x	Ultrasoinu bidezko saiakuntzari buruzko jarduerak egitean lortutako ezagupenak erabiliko dira.	Egiaztatzeko ikasleak gai direla ultrasoinu bidezko saiakuntza bere kabuz eta modu jarraituan egiteko, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko araudia kontuan hartuta.	Makinaren beraren eskuliburuaren fotokopiak eta gardenkiak.
E3. Ultrasoinu bidezko	1, 2, 3, 4,	0,5	x		Ikasle-talde bakoitzak ultrasoinu bidezko	Ziur egotearen ikasleek beharrezko	Txostena.



saiakuntzari buruzko praktika gidatuetan lortutako ezagupenak ebaluatzea.	5, 6 eta 7	h		saiakuntzaren praktika gidatuak azalduko ditu gainerako ikasleen eta irakaslearen aurrean. Ikasle-talde bakoitzak egin beharreko txostenean beharrezko datuak jasoko dira, ondoren, egindako ultrasoinu bidezko saiakuntzaren praktikak aurkezteko.	ezagupenak lortu dituztela ultrasoinu bidezko saiakuntzetarako makina, haren tresnak eta saiakuntzan baliatutako probeta erabiltzeko.	
OHARRAK						
<ul style="list-style-type: none">Makinaren bat eskura ez balego, saiakuntza mota horiek egiten dituen enpresa batera edota beste ikastetxe batera bisitaldia egin daiteke.						

3. unitate didaktikoa: PERDOI DIMENTSIONALAK AZTERTU ETA ZEHAZTEA

Iraupena: 12 ordu

